




KPIa moteldu egin zen abenduan %5,4ra iritsi arte

EAEko kontsumoko prezioen indizea

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: INE.

Inflazioa abenduan %5,4an kokatu zen, azaroan erregistratutakoa baino puntu bat eta hamarren bat beherago. Horrela, eta energiaren prezioen portaera onaren ondorioz, 2022 osoko daturik baxuenarekin itxi du urtea. Hala ere, azpiko inflazioaren aldakuntza tasa (%6,7) indize orokorrarena baino handiagoa da jada, eta egoera hori ez zen gertatzen 2021eko otsailetik.

Bidaiarien trafikoa hegazkinez handitu da berriro

Hegazkinez bidaiatu duten pertsonak

Urtarriletik abendura bitartean. Mila



Iturria: AENA.


2022an zehar, hegazkinez zihozten bidaiarien kopurua 2021ekoaren bikoitza izan zen eta sei milioi bidaiariren kopurura hurbildu da. Hala ere, gorakada hori gertatu den arren, aireportuak ez dira oraindik pandemiaren aurretik erregistratutako mailara itzuli.



Industriaren ekoizpena %1,6 hazi zen azaroan

Industria produkzioaren indizea (IPI)

Urte bakoitzeko azaroa. Indizea




Iturria: Eustat.

Eustaten arabera, azaroan EAEko industria produkzioa %1,6 hazi zen aurreko urteko datuarekin alderatuta. Tasa hori urrian erregistratutako balioa (%5,1) baino txikiagoa izan zen, batez ere kontsumoko ondasunetan (-%1,3) eta energiaren (-%2,8) izandako jaitsierak eraginda.

Euroaren eremuko langabezia tasa %6,5ean kokatu da

Euroguneko langabezia tasa

Ehuneko



Iturria: Eurostat.

Azaroan, euroguneko langabezia tasa %6,5ean kokatu zen, aurreko hileko erregistro berean. Horrela, 2021aren hasieran hartu zuen behe-ranzko joera berresten da, 1998tik izandako tasarik txikienak markatuz, aldi horretan hasi baitziren serie horretarako datuak argitaratzen.